

***KONTU-KONTARI*****KARITATEAREN ALABAGAIA**

Pixontziak egoten ziren ohe guztien azpian. Gorputzen sunda garratza hedatzen zen logeletatik korridoreetara. Zaharren artean, nik baneukan neure faborittoa. Atso makur bat zen, melenatxo zuria belarrien parean moztuta eta diadema larrosa batekin apainduta. Ikusten ninduen bakoitzean haren eztarria borborka hasten zen, jaiotzatik gorra zelako. Eskolan egiten genituen eskulan berberak zertzen irakasten nion, edo bestela, lorategiko jarleku bateraino eramaten nuen eguzkia hartzera. Orduan Larrotegiko eskoletan genbiltzan, mojen kolegioa itxi egin zutelako. Herri handiago batera lekualdatu zituzten Karitatearen Alabak, etxetzar hartan egoteko gutxiegi baitziren. Florak diru-zorroak eta betaurrekoentzako azalak egiten zituen gakorratzez, eta neure inisialak josten zizkien koloretako hariz. Haren begiak, berarekin egoten nintzenean, pozaren bristadatik malenkoniaren gurmetara aldatzen ziren, neure aurpegierarekin bat. Uste dut adi egoteko zeukan moduagatik hautatu nuela besteen artetik: Floraren isiltasuna munduaren alderdi absurdua aparte uzten zuen gontz baten modukoa zen, betiko ahotsetatik salbu gordetzen ninduen parentesia bat. Hospizioaren atzealdean belar mehea hazten zen, gure tamainakoa. Neska txikiok oso gogoko genuen zelai horretan lasterka ibiltzea besoak zabalik eta itsumustuka, zorabiatu eta lurrean luze jausi arte. Atso-agureek txalo egiten zizguten kristalen ostetik. Akaso gomutapen onak ekarriko zizkien belar mailatuak. Baziren gaixoak, elbarrituak eta

atzeratuak, emakume burusoilak eta gizonezko orbaindunak, tararen bat izan eta beste lau hormarik sekula ezagutu gabeko aspaldiko sasikumeak, gure erruki-senari arnasa eman eta higuinez bezainbateko adeitasunez artatzen genuen urrijendea. Bisitan joaten hasi gintzaizkien bertako kapilauari zera otu zitzaiolako, bere egonezin artistikoari moldea ematea umeen abesbatza bat sortuz. Don I. organista zen, trumoiak halako eztarria zeukan, eta gabon-kanten lehiaketa bat irabaztea zuen amets, berak sortutako piezak aurkeztuta. Gure maisu-maistrek onartu egin zioten proposamena, beharbada baietz esateko estutasunean jarri zituelako, baina baliteke baita ere pentsatu izana ekintza hura modu ona izan zitekeela gure pubertate hasiberria baretzeko, garai hartan ikastaldeetan ez ziztuzten neskak eta mutilak nahasten eta. Halandaze, hiruhileko oso bateko jolas-orduak kendu zizkiguten erreperitorioa prestatzeko. Entseguak hamaiketarik hamaika eta erdietara bitartean izaten zirenez, eskolatik ospiziora arin-aranga joan, kapera ilaratan jarri, eta abestu egiten genuen, eta estrainekoz esan hainbat berba ulergaitz, hala nola ludi, txadon eta abar. Rafaela Arroyok, Huelvatik familiarekin etorritako ikaskide batek, Jozu esaten zuen Josu esan orde. Lanak izan genituen Josu hori Jesus umea zela konturatzeko. Kapilaua erbestean egona zen abertzalea izateagatik, eta grina jeltzaleak hizkuntzaren garbitasuna galdatzen zion zenbateraino eta gerra aurretik ikasitako euskarazko hiztegi ezin jatorragoa agortzeraino. Bigarren geratu ginen gabon-kanten lehiaketan, eta sariaren diruarekin karamelu poltsakadak erosi genituen zaharren artean banatzeko, hortzez gabeturiko ahoak eta ahanzturak pobreturiko bihotzak goxatu guran. Halaxe, entseguen obligazioa amaitu eta segidan, bisitan joateko konpromisoa geureganatu genuen.

“Inork maite ez dituenak daude hemen” gure artean esanda, adorea bildu genuen halako batean gelaz gela pasatzeko. Logelak zabalak ziren, bakoitzean sei-zortzi ohe burdinazko.

Atsoen motots horixkek espartzuzko mostratzak ematen zuten eta esku hezurtsuak atxiki egiten zitzaizkien gureei diosal egitera hurbiltzen ginenean. Erakarri egiten gintuen hospizioak. Baldosen kontra jarritako makuluek eta makilek bazuten zer edo zer heroikoa, epikoa, profetikoa. Bazen botikinaren gela-txoa ere, eta bertan kristalezko potetxoz beteriko apalategia. Behin edo behin Flora eta biok barrura sartzen ginen isilkamisilka alkohola eta beste likido batzuk usaintzeko. Ezkutuko txango haiek egiteak sendoago elkarganatu gintuen. Beheko solairuko korridorean lau gurpileko orgatxo bat ageri zen gehienetan, goitibehera antzeko bat, gidari eta guzti, Tomas, gerran hanka biak galdutakoa. Orgatxo hura zen gure fetitxea, arriskuaren, ezbeharraren eta kemenaren sintesi perfektua. Alabaina, Tomasek bagentozela sumatzen zuenerako ziztuan egiten zuen ospa gurpilei eskuekin eraginda.

–Aingeru goardako barriak, horixe besterik ez genuen behar –esaten zuen purrustaka.

Hasieran, gure etxeetan gogo onez hartu zuten ohitura berria, baina geroago kezkatu ere egin ziren, gure adinerako afizioa ez zela eta.

–Hospizioa ez da zuok hor sartuta egoteko –esaten ziguten.

Hori gorabehera, zapatuoro joaten jarraitu genuen banaka batzuek.

Behin batean, gizon ezezagun batek keinuak egin zizkidan bere gurpil-aulkira hurreratzeko. Gazte samarra zen. Pijama berde argia zeukan soinean, eta aurpegiko azalari ere berde-kara iritzi nion, bizar txarto eginagatik hurrean. Begiak handi-handi, galdetu zidan ea zenbat urte nituen eta ea I. L. izeneko neska bat ezagutzen nuen.

–Zure urteak dauzka. Arranegi kalean bizi da.

Ezagutuko ez nuen bada.

–Bai, neure gelakoa da.

Gizona zotinka paratu zen.

–Neure alaba da. Ez dut ikusi orain dela hiru urte. Zelan dabil?

Esan nion abila zela gimnasia eta nota onak ateratzen zituela. Alabaina, gizonak mainaka zebilenez, beste egoiliarak urduritu egin ziren, iskanbila sortzeraino.

–Hasi gaituk! –esan zuen, erretxinduta, batoian tigreen marrazkiak zeuzkan agure batek–. Isil hadi behingoz, por los huevos de Buda!

Orduan moja erizaina etorri zen eta agindu mesedez logelatik irteteko eta gaixo bakoitzarekin denbora gutxiago emateko. Egia esanda, I. L. ez zen inoiz joaten bisitan. Esaten zuen amak ez ziola uzten, mikrobioengatik. Nire amak, berriz, azaldu zidan I. L. ren gurasoak banatuta zeudela aita mozkortia zelako. Hori ez zitzaidan niri muntako motiboa begitandu gizona etxe triste hartara kondenatzeko. I. L. ren amak bihotz gogorrekoa behar zuen, nabari zitzaion, bai, beti bekosko. I. L. ri esatekotan egon nintzen bere aitak galdera egin zidala, baina atzera egin nuen ondorioak kalkulatu ezinda. Handik gerora eskela ikusi nuen okindegian. Azalaren kolore bitxiagatik ezagutu nuen gizona. Neure buruari galdetu nion ea I. L. hiletara joan ote zen, ea hori egiteak lotsaizunik kenduko ote zion “inork maite ez zutenak bizi ziren tokian bizi izandako gizonari”.

Ikasturtearen erdian neska berri bat etorri zen eskolara. Txundituta utzi gintuen gauza guztietan gu baino gorago zegoelako. Lotsatia zen arren, haren trebetasun orokorrak orekatu egiten zuen batetik bestera dabilen jendeak garraiatu ohi duen gabezien fardel ikusezina.

Olio-pinturekin margotzen zuen –pailazo bat egin zuen niretzat eskuzabaltasunez, eta maistrak hamar bat ipini zidan–,

segurtasunez jokatzen zuen balontiroan –ez nik legez, baloi-kadei eskapaka ibiltzen bainintzen–, eta notarik onenak ateratzen zituen kontroletan –neure notekin errezelarik gabe leihatuz–. Izena zuen zer zatar bakarra, baina laburduratik deitzen genion. Demagun Ana zela. Anak adimena eta adeitasuna isurtzen zituen ingurura, eta leialtasun sentimendu sakona piztu zidan, gero eta geroko une gorenetan maite izan ditudan gizonak erne izan didatenaren parekoa. Imana bezalakoa zen. Orduko Aste Santuetan ohiturazkoa zen arropa berriak estreinatzea. Guk biok bikiak ematen genuen: gona eskoziarra, borladun leotardoak, mokasinak, denak berdinak. Yoyo berdina, ilerako zarrailu berdina, karpeta berdina. Bikiak, nahiz eta bera beltzarana izan eta ni zuri-gorria.

–Lagunak baino gehiago gara, ahizpak ia-ia– esaten genuen gure hurbiltasuna adierazteko.

Batera egiten genituen etxeko lanak, txandaka bataren edo bestearen etxean. Eta hamar urte moko bagenituen ere, atsegin genuen moilan pantxitotan egoten ziren mutikoen ondotik pasatzea. Eskutik helduta, haien txistadek eragiten zizkiguten kili-kilia partekatzen genuen.

Gure lotura usteltzen hasi zen nire Anarekiko debozioa tripetatik ahora igo eta bertan mikaztu eta hortzak ere klaskaka jarri zizkidanean. Neuretzat nahi nuen Mucedadesen hitzak idazteko erabiltzen zituen folioak ez ezik, baita kaligrafia ere. Neuretzat bere kontu guztien laburpena. Neuretzat Ana.

–Besteekin ere ibili nahi dut. Taldean ere ondo pasatzen dut –esan zidan halako batean.

Zergatik eman zidan hain min handia? Lagun hura, niretzat, ereduaren eredu zelako? Ez dakit. Amak behin eta berriz esaten zidan hobe zela lagun asko izatea, ez bat bakarra, horrek fallo egingo balu ere. Goizegi zen jakiteko lagunak huts egiten dutela, bai onak, bai erdipurdikoak. Leialtasunak krudelak izaten dira beti. Sanjoan suan erre nuen Anak niretzat pintaturiko pai-

laoa, eta uda osoa eman nuen maiseaketan haren kontra. Mundu guztiari esan nion bandera espainolez beteta zeukatela etxea eta Francoren argazkia telebista gainean. Berak ez zidan ihes egiten, baina ez ninduen arestian bezala hartzen. Anak eta familiak udazkenean alde egin zuten herritik, Xenki eta Murgirena gertatu ondoren. Hilketan parte hartu zuen mandotako bat zuen aita. Anak esan bazidan ere idatziko zidala bere helbidea izan nezan, ez nuen sekula gutunik jaso. Zain egon nintzen luzaroan, baina berri faltak ekarritako zapultzaldia aurrekoari gehitu zitzaion, eta halaxe ikasi nuen afektuen tamaina ez dela norberaren legekoa. Harri eta ma nengoen lagun mina izanak ez ninduelako behar nik bera behar nuen eran. Urteetan esan nion neure buruari haren isiltasuna, apika, nahitaezko neurria zatekeela tenientearen destinoa zein zen ez zabaltzeko. Kontsolazio pittin bat topatu nuen hipotesi horretan, inozokeria izan arren.

Berriz heldu nien hospizioko bisitei. Tomasen orgatxo ez zegoen bistan beheko korridorean. Ikuskari berriaren dekretuz kendu omen zuten, tramankulu hark egoitzari irudi eskasa ematen ziola eta. Egongelara igo nintzen, Floraren bila. Han zegoen, tximeletak egiten egunkari-paperez, baina alboan jesarri nintzaionean, ez zidan jaramonik egin. Aurreko hilabeteetan joan ez izanagatik mendekua hartu nahi zuela pentsatu nuen eta, hoztasun hari aurre egiteko, albuma eta pegamentoa atera eta kromo eskukada bat eman nion bion artean itsasteko. Florak begiak igurtzi zituen, eta gero zutitu egin zen salatik takatka irteteko. Erizain batek besotik heldu, bere jarlekura ekarri, eta lotu egin zuen, gerri-bueltan uhela estututa. Florak biribilak egiteari ekin zion hatz erakuslearekin mahai koipetsuan, eta aurrerantzean ezer ere ez zen izan lehenago bezala.

*Miren Agur Meabe*